


IRRINTZI BAT ENTZUN DA II


GERRA ZIBILAREN FRONTEAN BARRENA

Pyrenaica aldizkariaren 263 zenbakian Arabako frontearen ibilbidea argitaratu genuen, eta horren jarraipena da honako artikulua. Izan ere, gerra zital hura eta mendizaletasuna lotu nahi izan ditugu, gaiak behar bezala uztartu eta borobiltzeko. Horretarako, hainbat bataila eta gertaera garrantzitsuren toki eta Euskal Herriko mendizaleen zenbait leku historiko zapalduko ditugu oraingoan. Hori guztia helburu, 1937ko apirilko frontea hartu dugu abiapuntu eta lau etapako ibilbidea diseinatu.



1. ZATIA: OTXANDIO-URKIOLA (14 KM)

Otxandioko Andikona plazan hasiko dugu ibilbidea. Enparantza, tamalez, oso ospetsua izan zen Gerra Zibilean, faxistek zibilen aurkako lehen bonbardaketa bertan egin zuten eta. Eraso gupidagabea, benetan, 61 lagun erail zituzten, gehienak umeak eta zibilak, estatu-kolpea egin eta lau egunera. Handik, Ospitale zaharreko kalera abiatuko gara, Durangorako norabidea hartuta. Kalea topatzeaz bat, eskuinera egingo dugu, harik eta ezkerrera Samartoi kalea hartu arte. GR38ko markak ikusiko ditugu, eta horietatik jarraituko ditugu herritik atera arte. Aldats baten erdian, lehenengo gurutzean, zuzen jarraituko dugu GR 123a ezkerrean lagata. Illuntxura egingo dugu pista zabal batean, pare bat gurutze



TESTU ETA ARGAZKIAK



Arantza Jausoro Marugan
(Gasteiz, 1967)

EMFren presidente ohia eta mendi lasterketako epailea.

TESTU ETA ARGAZKIAK



Iñaki Barona Urbina
(Gasteiz, 1967)

IKA euskaltegiko irakaslea eta bide-teknikaria.

eta egurrezko zubia gurutzatu, eta, seinaleei kasu eginda, Urkiola-Amezola noranzkoa hartuko dugu. Malda suabea da datozen kilometroetan daukaguna, apurka-apurka altuera irabazten duena. Dolamendi gaina sumatu baino ez dugu egingo, bideak iskin egiten baitio ezkerretik. Aldapa gogortxo bat gaindituta, topo egingo dugu GR 282ko seinale batekin, Oletako guarda-etxeraino jaisuten denarekin hain zuzen. Guk, irmo, orain arteko bidea segituko dugu, pago ederren artean. Lantzean behin, eskuinera begiratuta, Anbotoko harrizarra ikusteko aukera izango dugu. Maltsaso eta Armora mendien artean helduko gara Itzinzelaixikira, bertatik Ollarganeko lepora, eta, bidetik atera gabe, Urkiolara gerturatuko gara. Otxandio faxisten atzaparretan erori eta egun batzuetara,

bidearen albo bietako kasko hauetan egundoko borrokak eta konbateak izan ziren, eta hegazkinen etengabeko bonbardaketak eta tiroketak sufritu zituzten gudariak zein milizianoek. Santutegira ailegatu baino lehen, basotik ateratzean, bihurtune itxi samar batean, Saibiko gurutzea ikusiko dugu hurbil antzean gure ezkerrean. Aurki, Urkiolako San Antonion izango gara.

Bidearen albo bietako kasko hauetan egundoko borrokak eta konbateak izan ziren

Belgikarra





Lurgorri eta Besaide Tellamenditik

Bikotekidea aurkitzekoa gerorako lagata, errepide aldera jaitsiko gara. Hoteletako zonatik bidea gurutzatu eta gora egingo dugu aldapa malkartsu batetik. Eskuin-ezker eginda, aldats luzea jarraituko dugu, Untzillatx mendia ikusgai dugula. Saibin izango gara segituan, azken kaskoa baino ez zaigu falta. Gurutzerako bidean, han eta hemen, gerra garaiko lubakiz mukurua beteko malda zapalduko dugu. Hemen izandako borroak oso latzak eta bortitzak izan ziren; erasoak, gainera, amaigabeak. Eskutik eskura pasatu zen mendi honen kontrola lauzpabost aldiz egun gutxitan. Odolaren mendia batailatu zuten Gerra Zibilean, eta horrela da ezaguna gaur egun. Goian gaudela, jakitun izango gara zer zela eta izan zuen horren-

besteko garrantzia mendi honek. Izan ere, talaia paregabea da, behatoki aparta, goitik inguru guzti-guztiak ikusten baitira: pasabide estrategikoak, hainbat menditako tontor, zenbait haran, mendateak, lepoak, bidezidorrak... Igotzeko egindako bide bera hartuko dugu, eta Urkiolara jaitsiko gara, bertan estreinako etapa amaitzeko.

2. ZATIA: URKIOLA-GANTZAGA (11 KM)

Urkiolan hasiko gara oinez, eta Santutegi alboko aparkalekuak ezkerrean lagata, GR 12ko seinalearen Urkiolagirre-Asuntzarako bideari jarraituko diogu. Maldan gora, larre zabaleko oinbideari



Bake-leku aterpeko tontortxo honetan apurtu zuten erreketek frontea, Oletatik igota

Hemendik, Iruatxeta (Ipizte) eskuinean dugula, Aramaio alde-ra joko dugu. Lepora iritsi aurretik, sartu-irten bat egingo dugu ezkerrera, eta Andasto haitzetara gerturatuko gara. Frontea hautsita, bide hau hartu zuten hainbat gudarik Elorriora jaisteko. Beste batzuek, berriz, goiko lepora hurbildu eta Tellamendi aldera jo zuten. Horixe segituko dugu guk, harik eta Ipiztekoarriagatik gertuko gurutzera ailegatu arte. Gurutze horretako seinaleari kasu eginda, Gantzagara jaitsiko gara, bigarren etaparen amaierara.

3. ZATIA: GANTZAGA-KANPAZAR (12 KM)

Gantzagako elizatik aterako gara, eta gora egingo dugu Ipiztekoarriaga aldera. Bi kilometro pasatu eta gero, gurutzearekin egingo dugu topo: GR 123an gaude. Eskuinera joko dugu, eta segituan ikusiko dugu harri famatua: Ipiztekoarriaga. Bertan, gotzain inkisidore bat akabatu zuten aspaldian, eta zizelatutako harria jarri zuten bertan oroigarri. Kurkutxo txabolatik pasatuko gara, eta, GRari segika, Tellamendira iritsiko. Bertatik, Udalatx lekuko, bidezidorra hartuko dugu bidera bueltatzeko, eta, lubakiak eskuinetik saihestu ondoren, Lurgorrira helduko gara. Erdi-erditik gurutzatuta jaitsiko gara Larrabilgo larrera. Korta bat ezkerrean utzita, iskin egingo diogu eskuinetik Larrabil mendiari. Handik gutxira dagoen bidegurutzean, ostera, eskuineko bidetik jarraituko dugu Larragainera igotzeko, eta, goiko kordeletik joanda, aurki bueltatuko gara bidera. Aldapa luze samarra jaitsi eta Larrazabalera sartuko gara, eta ia konturatu barik begi-bistan izango ditugu Besaideko monumentuak, zaharra eta berria. Mendizaleen leku berezia eta maitatua, zinez; izan ere, bertan gogoratzen ditugu urtero mendian hildako lagunak. Hortik, eta beti bide bera segituz, iturri aldera hurbilduko gara. Pareko erripa gaingitu, eta eskuinera joko dugu zurigorritz margotutako bideari jarraitzeko. Bideak buelta ematen dio Udalatx mendiari, eta horixe egingo dugu guk ere, harik eta Kanpazar mendatera ailegatu arte. Galipotak emango dio bukaera hirugarren etapari.

Urkiola eta Saibi (Ojanguren)



helduko diogu, eta, basotxo bat igaro ostean, ezkerreko kordeletik igoko dugu Urkiolagirre mendia. Mendi-tontorrean gaudela, postontzitik gertuko zelaian, nabarmena da defentsarako lubakien lerroa, urteek ezin ezabatutako zauri sendaezina. Behera joko dugu Pol-Pol aldera. Pista zabalera itzulita, Anbotorako noranzkoa hartuko dugu, eta, Asuntzako aterpea eskuinean utzita, Pagozelairantz abiatuko gara, galtzeko inolako arriskurik ez duen bidetik. Eskuinera apur bat jaitsita, GR 123a hartuko dugu lehen gurutzean. Ezkerrera egingo dugu oraingo honetan bide zabal batetik. Gora-behera batzuk egingo ditugu, eta, ezker aldean iturri bat eta eskuinean Jai-leku aterpea gaingituta, Zabalandira helduko gara.



Urkiolagirre eta Anboto

4. ZATIA: KANPAZAR-ELGETA (10 KM)

Kanpazar mendatean hasiko gara ibiltzen Elgetarako errepidetik paralelo doan bidetik. Hain zuzen, GR 123/121a hartuko dugu. Aldapa luzea dugu aurrean, eta apurka-apurka hasiko gara berotzen eta altuera hartzen, atzean Udalatx erraldoia zaintzen dugula. Pinudi batean arituko gara errepidera atera arte. Ehunka metro egin, eta ezkerrera joko dugu markatutako pista batetik. Baserri batera ailegatu orduko, eskuinera egingo dugu aldats malkartsu bezain motz batetik, pago zahar batzuk lagun. Berehala ikusiko dugu seinale askoko poste bat. Intxortako atea izeneko hartu, eta aldapa pikoari ekingo diogu leporaino. Eskumako gain harritsua gaindituko dugu; Gaztelumendi.

Defentsarako lubaki eta habiak nabarmenak dira oraindik, eraso bortitzen seinale

Lepora bueltatuta, iparralderantz joko dugu, eta aurreko pinudia gurutzatzen duen bidezidorrari jarraituko diogu. Ezkerrera egin eta aldapa malkartsu batetik igoko gara. Goian, Intxorta mendia dugu, haize-orratz itzelaz atondua. Atzera jo, eta lehenago igotako aldatsa jaitsiko dugu gurutzeraino. Zuzen



Saibiko plaka

jarraituta, Intxortatzikiko oinbidea hartuko dugu postontzira. Segituko dugu bide beretik, ezkerreko bidera atera arte. Xendak berak eramaten gaitu horretara. Basoa amaituta, beste bidezidor bati heldu, eskuinera orain, eta metro gutxi pasatuta lubaki sakon bat topatuko dugu. Gerraren gaineko panel handi bat ikusiko dugu, defentsa antolaketa azaltzen duena. Hortik behera, zaku zuriz jasotako parapetorik ezagunenarekin egingo dugu topo: Belgikarraren metraileta-habia. Lubakien sigi-saga egin, eta berehala elkartuko gara GR 121arekin, errepidetik gertu. Txoko horretan babesteko etxolak zein lubaki sakonak ikusteko aukera izango dugu. Aipatzekoa, bertan dagoen oroitarria: "Euskadik hemen gelditu zituen arerioen erasoaldiak". Intxortako atea eskultura aldera gurutzatuko dugu errepedea, eta bide zabal batetik San Asentzio ermitara hurbilduko gara, Gure-Borda eta lakutxo atzean lagata. Handik metro batzuetara faxisten lubakiak daude ikusgai. Guk, ezkerrera jo, eta Elgetarako noranzkoan etaparen azken kilometroak egingo ditugu. Uraixa, Miraballes eta Olatza baserrietatik pasatuko gara, errepedera irten arte. Asfalto pasatu, eta San Salvador basilizari bisita egingo diogu. Han, Elgetan izandako hilketak eta basakeriak salatzen ditu oroitarri handi batek, gerrako ekintza anker horietakoak, duda barik, gizateriaren kontrako krimenak.

Azken kilometroa baino ez zaigu falta Elgetako plazara ailegatzeko. Arkupetik gertu, etxe batean iltzatuta, plaka esanguratsua topatuko dugu: "Aquí fue fundada la federación vasco navarra de alpinismo. Mayo 1924-Mayo 1943".

Intxorta handi



ESKERRAK:

Eskerrik asko ibilbide hau gurekin batera egin duten lagunei: Joxe Lazkano, Argi Urizar, Iñaki Lazkano, Aitor Ibargutxi, Aixa Jausoro, Fer Erralde, Garbiñe Ibargutxi, Celia Olabe, Imanol Miranda eta Goio Aramendia.

TESTU-ZATIAK:

"Dena kea, dena pin-pan, pin-pan. Zer zen hura! Bonbardeo kompletoa. Dena ke baten." [Olabarria Oleaga, Zigor: *Gerra Zibila Otxandion*].

"¡Maldito el fascio mil veces y el ejercito traidor, quitasteis la vida a un héroe, a un hombre trabajador!" [Tabernilla, Guillermo eta Lezamiz, Julen: *Saibigain, el monte de la sangre*].

"Artilleros al cañón, afinar la puntería que detrás viene el Meabe con toda su infantería" [*Breve historia del Batallón Octubre. Las Merindades en la memoria*].

"Un fusil no vale nada si no hay un pico junto a él" [Teniente Coronel Ortega].